



**Barakaldo**  
CIUDAD·HIRIA



## PRENTSA OHARRA

**Barakaldon, 2021eko urriaren 11n**

# **Emakume Argazkilarien BAFEST 2021 Lehiaketak baditu irabazleak**

- **Cris P. Lareo bilbotarrak jaso du Euskal emakume argazkilari Onenaren Barakaldo Saria, eta Rocio Bueno madrildarrak Estatuko emakume argazkilari Onenaren BAFEST Saria.**

Emakume Argazkilarien BAFEST 2021 Lehiaketak baditu irabazleak. Cris P. Lareo argazkilari bilbotarrak eta Rocio Bueno argazkilari madrildarrak Euskal Emakume Argazkilari Onenaren Barakaldo saria eta Estatuko Emakume Argazkilari Onenaren BAFEST saria jaso dituzte, hurrenez hurren.

Sari banaketa ekitaldia larunbat arratsaldean egin zen Barakaldoko Clara Campoamor Kultur Etxean. Goizean, sei finalistek –Cris P. Lareo, Andrea Aguilera, Sara Santos, Manuela Lorente, Rocio Bueno eta Elba Haxel– euren lana defendatu zuten Carmen Dalmauk, Itziar Bastarririk eta Ros Boisierrek osatutako epaimahaiaren aurrean. Horrek oso positibotzat jo zituen aurkeztutako sei lanak, argazkilariak lanean jarraitzera animatu zituen eta irabazleak aukeratzeko erabili zen irizpidea “ondoan itxitako” lanak saritzea izan zela adierazi zuen.

Irabazleek erakusketa batekin hartuko dute parte 2022ko edizioan, eta 500 euro ere jaso dituzte ordainsari gisa.

[www.baffest.eus](http://www.baffest.eus)

[www.facebook.com/baffest](https://www.facebook.com/baffest)

[www.twitter.com/baffest\\_eus](https://www.twitter.com/baffest_eus)

[www.instagram.com/baffest.eus](https://www.instagram.com/baffest.eus)